Arcelor Mittaleko lantoki guztietan inbertsio zein kontratazio eza orokorra da. Azpikontratazioa eta prekarietatea, aldiz, gero eta handiagoa da. Egunotan, multinazionalak Bergarako lantokian 41 langileak kaleratzeko EEEa aurkeztu berri du. Egoera bera iraganean ere jasan zuten Sestao eta Zumarragako langileek. Etorkizunean edozein lantokiak jasan dezake.

ELAk ez du antzematen multinazionala ezer egiten ari denik Euskal Herriko lantokien alde. Bien bitartean, aurten multinazionalak 3 mila milioi euroko etekinak izan dituela iragarri du, iaz baino %156 gehiago. Eta, hau guztia, Eusko Jaurlaritzaren isiltasun eta konplizitatearekin.




## Elkartasuna Errenteriako TAO zerbitzuko langileekin

Azaroaren 16an ELAko ehunka ordezkari bildu ziren Errenterian OTA-TAO zerbitzuko langileei euren elkartasuna adierazteko. Udalak langile guzti hauek kaleratu zituen abenduaren 5ean. Egun horretatik aurrera, zerbitzua kudeatzeko orain arteko langileekin kontatu beharrean, kontrol lana udaltzaingoak egingo du. Erabaki honekin 25 urtez zerbitzu horretan aritu diren langileak kalean geratu dira, eta enpresak ez du berkolokaziorik aurreikusten. ELAk gogor salatu nahi du Errenteriako udal gobernuan dauden alderdiek –EH Bildu eta Irabazi– prozesu honetan izan duten jarrera.

## Akordioa Zubietako Dachser garraio enpresan

Zubietako Dachser garraio enpresako langileek erreformatik blindatzen dituen eta lan baldintzak nabarmen hobetzen dituen greba amaierako akordioa sinatu zuten azaroaren 14an. Guztira 60 langilek dihardute bertan lanean. ELAk oso irakurketa positiboa egiten du, eta sinadura urte hauetako militantzia sindikalaren ondorio dela azpimarratu nahi du.

## La dirección de Siemens Gamesa retira el expediente de extinción de empleo

La dirección de Siemens Gamesa notificó el pasado 4 de diciembre a los representantes sindicales la retirada del expediente de extinción de empleo.

ELA considera que este cambio se ha producido por el rechazo frontal a la decisión de la empresa de despedir a 272 trabajadores y trabajadoras. ELA ha mostrado su preocupación por la falta de rumbo que detecta en la dirección de la empresa, acentuada tras el proceso de absorción por parte de Siemens. En unos pocos meses, se ha pasado de trasladar las bondades de la absorción, garantizando el arraigo de Gamesa, al desmantelamiento de la dirección anterior y al anuncio de despidos, sin justificación alguna.

En este sentido, ELA ha exigido que se corrija el rumbo errático de los últimos meses. "Creemos que es el momento de afianzar un plan industrial que garantice el futuro de la compañía y descarte por completo la pérdida de empleo".



# La movilización imprescindible

## LOS/AS TRABAJADORES DE OFICINAS Y DESPACHOS DE BIZKAIA IRÁN A LA HUELGA EL 1 DE FEBRERO EN DEFENSA DEL CONVENIO



Rubén, Alberto, Verónica y Agustin, delegados/as de Oficinas y Despachos

› LANDEIA

**Con el convenio decaído en 2012,** con dobles escalas salariales y laborales en las empresas entre los provenientes del convenio provincial y las nuevas incorporaciones bajo convenios estatales, y con una patronal que condiciona la existencia del convenio provincial a la firma de contenidos peores a los recogidos en el último convenio vigente, los/as delegados/as de ELA en Oficinas y Depachos entienden que "no hay más opción: o nos movemos o nos movemos".

**-¿En qué momento se encuentra la negociación del convenio?**

**-Agus (ENTELGY IBAI):** La patronal apuesta por el chantaje: cero atrasos; misma jornada que en 2012; incrementos raquíticos sin referenciar al IPC; eliminación de facto de la garantía mínima; limitar la antigüedad a un máximo del 10%; compensación y absorción, más todas las joyitas otorgadas por la reforma laboral... Así las cosas sólo hay una respuesta posible: parar el sector.

**-Rubén (SERIKAT):** CEBEK pretende, además, que la parte social le firmemos un convenio que permita la diferenciación entre aquellos bajo el convenio de Oficinas y Despachos, y los que se encuentran bajo convenios estatales (por ejemplo, el de consultoras), a los que sólo se les aplicaría el provincial tras un proceso de negociación en cada empresa, y a partir de 1 de enero del 2022, de no lograrse acuerdo.

**-Alberto (ENTELGY IBAI):** CEBEK ha soltado un envido a la grande, y los más de 20.000 compañeros/as no podemos pasar. No nos queda más que soltar un órdago a CEBEK.

**-¿Y ese órdago es la huelga del día 1 de febrero de 2018?**

**-Rubén:** Sí, el primero, pero tendrá que haber más si queremos ganar esta partida. El 26 de octubre sumamos mucho con la manifestación que congregó a más de 1.000 personas.

**-Vero (GFI NORTE):** No ya sólo por el hecho de juntar a más de 1.000 compañero/as tras casi 4 años desde la última movilización, sino porque durante el mes anterior llevamos una clara fotografía de la situación de la negociación y de la necesidad de confrontación a muchísimas empresas mediante asambleas. Hemos hecho un gran trabajo informativo y de concienciación; y, sinceramente, creo que hemos logrado socializar la situación. El sector sabe que la mesa de negociación está bloqueada por la patronal, y que ahora depende de nosotros/as, de nuestra lucha, conseguir un convenio digno.

**-Alberto :** Pero antes del 1 de febrero queda mucho que hacer. Hemos realizado concentraciones en las empresas el 13 de diciembre, y el próximo 18 de enero convocaremos una gran manifestación previa a la huelga del 1 de febrero.

**-Gran parte del sector son subcontratas de sociedades públicas como LANTIK, EJIE...**

**-Rubén:** Los líderes en precarización y subcontratación del trabajo.

**-Vero:** Lantik y Ejie, es decir, Diputación Foral de Bizkaia y Gobierno Vasco, sacan a licitación contratos a los que acuden como hienas las empresas privadas, ofertando lo más barato posible por hacerse con la porción del pastel. Y claro, ofertar barato es precarizar y recortar las condiciones laborales de los que "pringamos" sin derecho a la subrogación, y muchos bajo las condiciones del convenio estatal de consultorías.

**-Agus:** Bueno, bonito y barato. Esa es la filosofía de la Diputación en LANTIK, y Gobierno Vasco en EJIE. Y eso se traduce en ingeniero informático, sin derecho a la subrogación, bajo las condiciones sociolaborales del convenio estatal y remuneración de 15.000 euros brutos anuales.

**-Así las cosas, las empresas van viento en popa.**

**-Vero:** Sin duda. GFI Norte, en apenas 2 años, ha pasado de 400 a más de 600 trabajadores. Eso sí, nada de mejorar las condiciones de los trabajadores: nuevas contrataciones bajo el convenio de consultorías estatal.

**-Alberto:** Tenemos que ponerle fin a esta carnicería laboral. No puede ser que un sector que mueve el país esté bajo las condiciones de un convenio estatal precario; con millones de euros de dinero público transfiriéndose a las cuentas de empresas privadas a costa de jugar con las condiciones laborales de los trabajadores/as.

**-Rubén:** Necesitamos un convenio provincial digno y garante.

**-Alberto:** Si para Connectis, Iberdrola tiene un problemón. Si paran las subcontratas de Lantik, Bizkaia se bloquea. ¿Y qué pasaría si los Centros de Atención a Usuarios parasen? Si paramos el sector, conseguiremos un convenio digno.

**-Rubén:** A parar. No hay otra.



EKOLOGIA
MEDIO AMBIENTE

# Klima aldaketa okerrera eta agintariak beste aldera begira

2016A INOIZ IZAN DEN URTERIK BEROENA ETA CO2 EMISIO GEHIEN IZAN DITUENA IZAN DA



En 2016 los registros de CO2 han marcado récord histórico. Siguiendo con la tendencia actual de emisiones, es decir, que la concentración de CO2 tenga un incremento anual como el actual, el calentamiento del planeta estará entre 4,1 y 4,8 grados. Este año hemos tenido el mismo resultado que en las anteriores Cumbres del Clima. Se alarga el plazo para cumplir los objetivos señalados para el 2017. Las decisiones más importantes se dejan para la siguiente Cumbre.

**› AINHARA PLAZAOLA**

**Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako azterlan baten arabera,** euskal gizartearen %90ak uste du klima aldaketa gertatzen ari dela dagoeneko, eta %80 baino gehiago kezkatuta dago. Beste afera batzuetan bezala, gizartea gobernuen aurretik doa.

Klima aldaketaz hitz egiteak berotegi efektuko gasen (BEG) kontzentrazioaz hitz egitea dakar. Munduko Meteorologia Erakundeak argitaratu berri du BEGen inguruan egin duen azken ikerketa. Atera duten ondorioa larria da oso. 2016 urtea izan da datuak erregistratzen hasi zirenetik izandako urterik beroena. Eta hau gizakion jarduerek eragindako BEG isurketen ondorio zuzena da. Hau ez da ezer berria zoritxarrez.

Industrializazio garaiaren aurretik, 1750 urtean, atmosferako CO2 kontzentrazioa 278 ppm (partikula milioiko) zen. 2016an CO2 erregistroek maximo historiko berriak markatu dituzte 403,3 ppm kontzentrazioarekin. CO2 mailak %145 hazi da, batez ere erregai fosilen erabileragatik eta deforestazioaren eraginez. Datu hau esanguratsua da bere baitan, baina are esanguratsuagoa azken 10 urteetako hazkunde erritmoak gora egin duela jakinda. Azken hamarkadan urteko 2,21 ppm hazkundea izan du CO2 kontzentrazioak, baina 2015-2016 epean hazkunde hori 3,3 ppmkoa izan da.

**Eta zer ari gara egiten egoerari buelta emateko?** Ezer gutxi. Industrializazio aurreko garaitik 1,1ºC igo da planetaren tenperatura. Klima aldaketari aurre egiteko mugimenduek badute helburu konkretu bat: CO2 kontzentrazioa 350 ppm azpitik mantentzea planetaren beroketa 1,5ºC baino handiagoa ez izateko. Herrialde askok ez dute helburu hau konpartitzen eta beraien politikak azaltzerako orduan 2ºCko beroketaren muga aipatzen dute; horrela sinatu zen Parisko Akordioan. Baina helburua bata zein bestea izanda ere, oraindik oso urrun gaude. Egungo joerari jarraituz, hau da, emisioak eta CO2 kontzentrazioak urtero oraingo erritmoan gora egiten badute, planetaren beroketa 4,1 eta 4,8 gradu bitartekoa izango da 2100 urtean.

Testuinguru horretan igaro da aurten ere Nazio Batuen Klima aldaketaren aurkako Goi-bilera, COP23 deritzona. Eta emaitzari begiratuta, zaharrak berri.

Parisko COP21 geroztik, bi urte daramagu esaten herrialde bakoitzak hartu behar dituen neurrietan haratago joan behar duela Parisko Akordioan hartutako konpromisoak bete ahal izateko. Ez da nahikoa etorkizunean neurri gehiago hartzearen promesa egitea, gehiago zehaztu gabe. Herrialde bakoitzak bere berotegi efektuko gasen (BEG) emisioak murrizteko hartuko dituen neurriak plazaratzeko momentua da, eta baita baliabide gutxiko herrialdeei klima aldaketaren aurkako politikak aurrera eramaten diruz laguntzeko sortu zen Fondo Berdean adostutako dirua jartzeko garaia ere. Hauek biak ziren Bonnen ospatu den COP23aren helburu nagusiak.

**Baina aurten ere aurreko Goi-bileretan izandako emaitza izan dugu.** 2017rako zeuden helburuak betetzeko epeak luzatu dira. Erabaki garrantzitsuenak hurrengo urteko Katowiceko (Polonia) COP24rako utzi dira. Parisen adostutakoa 2021ean sartzen da indarrean baina 2018an zehaztu behar da etorkizuneko araudia. Parisko Akordioa oraindik bete ez denean, jada esaten ari dira ez dela nahikoa izango eta COP24an herrialde bakoitzak bere plan nazionalak modu anbiziotsuagoan berrikusi beharko dituela.

Finantziazioa ere urtero kolokan egoten den kontua da. 2009an adostutako Fondo Berdeak, herrialde guztien artean jarritako 100.000 milioi dolar jaso behar zituen urtero. Urte guzti hauetan ez da helburu hau bete, eta COP23a ere ez da ezberdina izan.

Beraz, beste urte bat joan zaigu ezer gutxi aurreratuta eta 2018tik ere ez dugu emaitza positiborik espero.

DESDE IPARRALDE
IPARRALDETIK

# Bake lumak

MARTINE BOUCHET, MILITANTE EKOLOGISTA, BAKEGILEA ETA 'BAKE LUMAK' LIBURU KOLEKTIBOAN PARTE-HARTZAILEA



› XABIER HARLUXET

**CADE edo Ingurumenaren defentsarako elkarteen kolektiboko kide eta Bakegile den Martine Bouchet-eri** elkarrizketa egin diogu bere parte hartzearekin argitaratu den *Bake lumak* liburu kolektiboari buruz.

**-Zer da *Bake lumak*?**

-*Bake lumak*, olerkilari, kazetari, marrazkilari, idazle edo bake prozesuko pausu ezberdinetako aktoreen lekukotasun liburu bat da. Bakoitzak bakeari buruz duen ikusmoldea aurkezten du. Bertan aurkitzen ditugu besteak beste 2016ko abenduaren 16an, Luhuson, bere etxean iragan zen lehen armagabetze operazioaren deskribapena Béatrice Molle-Haran-en eskutik, Mixel Berhocoirigoin eta Txetx Etcheverry-ren lekukotasunak bai eta ere ETAk senarra erail zion Rosa Rodero-rena. Azpimarratzekoa da horrez gain, egile eskubide gabeko liburua dela, eta ondorioz irabazi guziak Bake Prozesuan jendarte zibilaren ekintza egituratzen duen Bake Bidearentzat direla.

**-Nondik etorri zaizue Bake Prozesuan horrela parte hartzeko ideia?**

-2017ko apirilaren 8an, Baionako armagabetze eguna iragan eta, argi zen bake bidean korapilo bat desegin zela, eta bake bidean barnatzea, motore nagusia den jendarte zibilaren ekintzaren araberakoa izanen zela. Idazleen munduko pertsona ezberdinen artean topatu gira, ikusteko nola posible zitzaigun gure aportazioa egitea. Ondorioz, liburuaren ideia naturalki etorri zaigu.

**-Nola antolatu duzue liburuaren egitea?**

-Liburuaren egiteko hautatu ditugun pertsonak gomitatu ditugularik, bakarrik erran diegu zein izanen zen beren lekukotasunaren tokia: edo gatazkaren atalean, edo historiaren atalean, edo konponbidearen edo/eta perspektiben atalean. Bakoitza libre zen garatzea harentzat garrantzitsuena zena. Bata bestearen ondotik emanak direlarik, ekarpen horiek erakusten dute ikuspuntuen aniztasuna. Biziki humanoa den liburu bat osatzen dute. Bake prozesua izan behar denaren ispilu.

**-Zein izan da zure ibilbide pertsonala, bai eta ere dinamika horren baitakoa?**

**El libro Bake lumak pretende que diferentes víctimas del conflicto político den su punto de vista sobre lo que significa 'la paz'**



-Duela aspaldi ingurumen arloan militatzen dut Iparraldean. Bertan elkarte sarea aberatsa eta trinkoa da. Parada anitzetan ene bideak gurutzatu du ingurumenaren, bai eta horrekin oso lotuak diren jende eskubideen errespetuan Euskal Herrian gero bat eraikitzeko lanetan ari diren pertsona frangoren bidea. Apirilaren 8ko armagabetze egunaren deia sustengatu duen *50 bakegileen* taldean engaiatu naiz, eta bertan ikuskari izan naiz. Apirilaren 8tik geroz, *Bake lumak* liburuaren proiektuan parte hartzeaz gain, bake prozesuaren erronken aurkezteko egin ditugun herri ezberdinetako bilkura publikoen animazioan parte hartu dut.

**Hemos tratado de lograr un libro muy humano, que sea un espejo de lo que tiene que ser el proceso de paz**

**-Nola jarraitzen ahal dugu bakea eraikitzen?**

-Ez da mirakuiluzko errezetarik, eta bidea ez da jada marraztua. Bada hala ere sekulako parada bat, Luhusokoek bultzatua. Haiek digute erakutsi gutariko baikotzak baduela ahala, elkartuz geroz, Estatuek nahi ez zutena egiteko. Bizitzako irakaspen eder bat da, orain praktikan ezartzen jarraitu behar duguna. Abenduaren 9ko mobilizazioa pausu bat gehiago da bide horretan. Aurrekoak bezala erabakigarria, baina ez azkena. Bakoitzak den tokitik parte hartzen ahal du.

**LEGEAREN BUELTAK**
**PAGINAS JURIDICAS**

# Estatuko Sektore Publikoko kontratu publikoen Lege berriak sektoreko hitzarmenak hobesten ditu

ADMINISTRAZIOAK ERANTZUKIZUN HANDIA DU AZPIKONTRATATUTAKO LANGILEEN INGURUAN




› **HAIMAR KORTABARRIA**

**Azaroaren 9ko Estatuko Aldizkari Ofizialean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren** 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikoan barneratzeko onartutako 9/2017 Legea –Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, argitaratu zen–. Legea martxoaren 9an sartuko da indarrean. Gai oso garrantzitsu bati dagokion legea izanik, badauzka aipamena merezi duten hainbat kontu.

Gure ikuspegitik, adibidez, lan munduaren ikuspegitik, alegia, ELA aspalditik ari da administrazioak lizitazio prozesuen ondorioz enpresa pribatuekin egindako kontratuek milaka eta milaka langilerengan eragin zuzena dutela ohartaraziz. Hauek ere, zeharka bada ere, administrazioarentzat lan egiten dute, euren zuzeneko ugazaba administrazioa izan ez arren. Eta horregatik, administrazioak erantzukizun handia du langile horien lan baldintzen inguruan.

Guzti horrekin zerikusi zuzena du, hain zuzen ere, Sektore Publikoko kontratuei buruzko lege berrian lizitazioetan parte hartzen duten enpresei sektoreko hitzarmena aplikatu beharrari buruz jaso den arauketak. Lege berriaren 122. artikuluan, adibidez, administrazio-oinarri partikularren pliegoen enpresariari aplikagarri zaion sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldatak ordaintzeko betebeharra jasotzen da.

Horrekin lotuta, 149. artikuluaren arabera, kontratazio organoek ohikoa baino baxuagoak diren eskaintzak atzera botako dituzte, indarrean dauden sektoreko hitzarmenak betetzen ez dituztenak, adibidez. Ildo beretik, kontratua betetzeko baldintza berezia gisa irizpide sozialak edo enpleguari dagozkionak ezartzeko aukeraz ari denean, legearen 202. artikuluak aplikagarri diren sektore eta lurraldeko hitzarmen kolektiboak betetzea baldintza gisa ezartzeko aukera jaso du.

**La nueva Ley de Contratos del Sector Público** regula la necesidad de que la empresa adjudicataria del contrato público cumpla las condiciones salariales de los trabajadores conforme al convenio sectorial de aplicación. Quienes impulsaron, aprobaron y aplican la reforma laboral que otorgó prioridad aplicativa a los convenios de empresa frente a los sectoriales (a pesar de regular condiciones peores) han criticado con dureza esta medida.

El PP trató de eliminar, vía enmiendas en el Senado, la preferencia de la nueva Ley en favor de los convenios sectoriales en las licitaciones públicas. Este intento no ha prosperado por el rechazo, entre otros, del PNV. Paradójica postura la del PNV, que hace unos años descafeinó la ILP presentada por ELA en ese mismo sentido, hasta el punto de aprobar una Ley vasca que, lejos de garantizar que las condiciones del sector eran mínimas en las licitaciones públicas, ampara que empresas con convenios peores que los del sector puedan licitar al precio de sus convenios, fomentando un inaceptable dumping social.

Un parlamentario del PNV reconoció que otra ley era posible, pero que no estaban dispuestos a dar esa victoria a ELA. UGT y CCOO han aplaudido esta preferencia de la ley estatal por los convenios de sector, congratulándose de que el legislador haya atendido sus aportaciones. Que cada cual saque sus propias conclusiones.

**Lizitazio publikoetan sektoreko hitzarmenak aplikatzeko beharra ezartzen duen erregulazio hau** oso kritikatua izaten ari da 2012. urteko lan-erreforma bultzatu eta defendatu duten hainbat sektoretatik. Izan ere, erreforma hark ekarritako aldaketen artean aipagarrienetariko bat enpresa hitzarmenei emandako eraba-

teko lehentasuna izan zen. Lehentasun horren arabera, enpresa hitzarmenek jasotako zenbait baldintza (soldata, ordu extra, ordutegi, lanbide-sailkapen, kontratazio-motak, kontziliazioa...) sektoreko hitzarmenetan daudenen aurretik aplikatuko dira, baldintza kaxkarragoak izan arren. Erreforma horren aurretik, ordea, sektoreko hitzarmenak ezarritako baldintzak sektore horretako gutxieneko baldintzak ziren, hau da, enpresa hitzarmenek baldintza horiek hobetu zitzazketen, baina ez zuten baldintza horiek okertzeko aukerarik.

Aipatu beharra dago Sektore Publikoko Kontratuen Legearen tramitazioan, Lege proiektua Senatuan zegoela, PP saiatu zela emendakinen bidez sektoreko hitzarmenen aplikazioaren aldeko aurreikuspen hori bertan behera uzten, enpresa hitzarmena zuten enpresei lizitazioetan enpresa hitzarmeneko baldintzekin parte hartzeko aukera emanaz. Emendakin horiek ez ziren, ordea, Espainiako parlamentuan onartuak izan.

PPk aurkeztutako emendakin horien aurkako botoa eman zuten legebiltzarreko taldeen artean EAJ -baita PSOE- egoteak harrituta utzi nauela onartu beharra daukat. Izan ere, ELAk duela urte batzuk 110.000 pertsonaren babesa jaso zuen Herri Ekimen Legegilea (HEL) aurkeztu zuenean bi eskari nagusi egin zituen: bata, administrazio publikoen lizitazioetan langileen subrogazio eskubidea bermatu zedila, eta bigarrena, lizitazioak zirauen bitartean administrazioak esleitutako kontratu horien onuradun ziren enpresek gutxienez sektoreko hitzarmenak ezarritako baldintzak aplikatu beharko zizkietela beren langileei.

**ELAk aurkeztutako Herri Ekimen Legegile horrekin zer egin zuten bada EAJ eta PSEk?** Subrogazio eskubideari dagokionez, aplikagarri ziren hitzarmen kolektiboek subrogazio eskubidea jasoz gero soilik egongo da bermatuta eskubidea -hori eta ezer ez esatea berdin da-; eta lizitazioan aplikatu beharreko lan baldintzei buruz, beste hainbeste: enpresek dagokien hitzarmena aplikatu beharko dute, dela enpresakoa dela sektorekoa, nahiz eta enpresa hitzarmena sektorekoa baino okerragoa izan.

EAJko legebiltzarkide batek esan zigun gure HELaren ondorioz onartu zuten legea hobea izan zitekeela, baina ez ziotela ELAri garaipen hori emango. Estatuko Sektore Publikoko Kontratuen Lege berria onartu eta batera Espainiako UGT eta CCOOk oso positiboki baloratu dute sektoreko hitzarmenen aplikazioaren alde jasotako erregulazioa, eurek egindako proposamenen ondorio dela aldarrikatuz gainera. Bakoitzak bere ondorioak atera ditzala.

# CONSULTORIO JURÍDICO

## Desaparece la referencia a la subrogación vía pliegos en la nueva Ley de Contratos del Sector Público

**El pasado 9 de noviembre de 2017 fue publicada en el BOE la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público,** por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014. Su entrada en vigor se producirá a los cuatro meses de su publicación, lo que retrasará sus efectos hasta el día 9 de marzo de 2018. En dicha fecha quedará derogado, por tanto, el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, que es la norma que actualmente regula la contratación del sector público.

Son muchas las novedades que esta nueva norma introduce en la materia. Sin embargo, en esta ocasión nos referiremos al cambio en la regulación que afecta a la conocida como "subrogación vía pliegos". Los pliegos de cláusulas administrativas son el documento oficial en el que la administración adjudicadora recoge las condiciones en las que deberá prestar el servicio la empresa que resulte adjudicataria. Y, precisamente, en los pliegos correspondientes a muchas licitaciones se viene recogiendo la obligación de la empresa entrante de subrogarse en todos los derechos y obligaciones de la empresa saliente.

Se trata de una materia que afecta no sólo al ámbito administrativo - referente a las administraciones públicas que adjudican contratos- sino también al orden social, en la medida en que la obligación de subrogación es una cuestión que atañe a tal orden y, por tanto, regulan las normas laborales. Y precisamente, el orden contencioso (tribunales de justicia de lo contencioso administrativo, Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales y tribunales administrativos contractuales de comunidades autónomas) y el orden social (tribunales de justicia laborales) se encuentran claramente enfrentados en relación con la posibilidad de que los pliegos puedan ser fuente u origen de obligaciones de tipo laboral.

Así, los tribunales laborales (Sentencia del Tribunal Supremo de 4 de junio de 2013, entre otras) vienen admitiendo la capacidad de los pliegos para imponer obligaciones subrogatorias. Dicho reconocimiento se ha apoyado por los tribunales en lo previsto en el artículo 120 de la actual Ley de Contratos del Sector Público, que – en caso de contratos que impongan al adjudicatario la obligación de subrogación- establece que el órgano de contratación deberá facilitar a los licitadores la información sobre los contratos de los trabajadores afectados.

Sin embargo, los tribunales contencioso-administrativos y distintos órganos de resolución de recursos contractuales -de ámbito estatal y autonómico- únicamente reconocen la capacidad de imponer la subrogación a leyes laborales o convenios colectivos, negándosela a los pliegos administrativos, por tener la subrogación un contenido estrictamente laboral.

Pues bien, en la nueva Ley de Contratos del Sector Público que entrará en vigor el próximo mes de marzo desaparece la referencia – que ahora se contempla en el art. 120 - a los contratos que impongan al adjudicatario la obligación de subrogación. Esto supone la desaparición del principal argumento utilizado por quienes vienen defendiendo la capacidad de los pliegos para establecer la obligación subrogatoria. La información a la que se refiere el actual artículo 120 pasa en la nueva Ley al artículo 130, que a la hora de referirse a la fuente creadora de la obligación de subrogación menciona la norma legal, el convenio colectivo y los acuerdos de negociación colectiva de eficacia general, obviando la posibilidad de la actual Ley de que un contrato imponga al adjudicatario tal obligación.

En definitiva. Que la subrogación vía pliegos ha sido silenciada en la nueva ley. Sin embargo, tampoco ha sido prohibida. Y siempre habrá quien defienda que lo que no esta prohibido está permitido.

GIZARTE EREDUA
POLÍTICA SOCIAL

# Cumplir con el déficit y las entidades bancarias

EN SUS PRESUPUESTOS PARA 2018, TANTO EL GOBIERNO VASCO COMO EL GOBIERNO DE NAVARRA HAN HECHO PROPIAS LAS RESTRICCIONES A LA CAPACIDAD PRESUPUESTARIA QUE SE DECIDEN EN MADRID




› **IÑAKI ZABALETA**

**Los presupuestos de la CAPV y de Navarra para 2018 siguen su curso** en el camino de que terminen siendo aprobados. Lamentablemente, no podemos decir que haya cambios significativos a los de los años anteriores.

En la CAPV, en ejercicios anteriores, la justificación esgrimida para ello era que la recaudación no daba para más. Sin embargo, la evolución de la recaudación de las haciendas de la CAPV está siendo mejor de lo esperado. En concreto, la previsión de recaudación actualizada para 2017 es casi 900 millones superior a la estimada a la hora de elaborar los presupuestos de este año.

La mayor recaudación se debería traducir, según la lógica seguida hasta ahora, en una mayor asignación presupuestaria para poder revertir los recortes y poder mejorar la calidad de los servicios públicos y la cuantía de las prestaciones sociales.

Sin embargo, el proyecto de presupuestos de 2018 no va en esa dirección, sino que, al contrario, se plantea de nuevo un exiguo crecimiento de las dotaciones presupuestarias.

**En Navarra la previsión para 2018 también es nefasta.** La Administración Pública cada vez maneja un menor porcentaje de la economía, por lo que su capacidad de incidir en el reparto de la riqueza va mermando. Así,

## Hego Euskal Herriko bi gobernuek gastu mugatzea erabaki dute, Madrileko jarraibideen ildotik, eta dauden beharrizanak aintzat hartu barik

## Beharrezkoa da aurrekontu-politikaren logika aldatzea, eta aurrekontua eta diru-bilketa gizarte-beharrizanen arabera taxutzea

en 2018 el presupuesto aumentará un 0,6%, mientras que la previsión es que el PIB crezca un 2,7%. Esto es, el presupuesto seguirá perdiendo peso respecto a la economía.

Pero si algo tienen en común ambos presupuestos son sus prioridades. Ambos gobiernos han optado por compartir los objetivos de la reforma exprés de la Constitución aprobada en pleno verano de 2011, cuando el Gobierno de Zapatero y el PP acordaron modificar el artículo 135 de la Constitución para imponer el pago de la deuda como prioridad de todas las instituciones, en detrimento de otras partidas presupuestarias, como la sanidad o la educación.

La concreción de esta reforma se produjo con la aprobación de la Ley de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, y fue incluso más allá de lo que se planteó con la reforma de la Constitución. Así, a través de esta Ley se da capacidad al gobierno español para fijar el nivel de déficit público de todas las instituciones (Gobierno Vasco, Gobierno de Navarra y Diputaciones Forales incluidas) y para establecer el aumento del nivel de gasto que pueden tener todas las instituciones en los años siguientes.

**Y esta política es algo que comparten tanto el Gobierno Vasco como el de Navarra.** Y es que sin la colaboración del PNV, el Parlamento español no habría aprobado las limitaciones que se imponen a los presupuestos públicos, incluidos los de Hego Euskal Herria, como son el límite de déficit público que tienen que cum-

plir obligatoriamente todas las administraciones (en 2018, el déficit de las Comunidades Autónomas no podrá superar el 0,4% del PIB) o la denominada regla de gasto, que fija que en 2018 "el gasto computable de la Administración Central, de las Comunidades Autónomas y de las Corporaciones locales no podrá superar el 2,4%" en términos nominales. Los ingresos que se obtengan por encima de lo previsto se destinarán íntegramente a reducir el nivel de deuda pública. Es decir, se topa el aumento de los presupuestos para 2018.

Por tanto, lo primero es que los dos gobiernos de Hego Euskal Herria han acordado limitar el gasto conforme a lo que se decide en Madrid, no conforme a las necesidades sociales que existen.

El segundo paso es priorizar el pago de la deuda pública por encima del resto del gasto. Esto es, ambos gobiernos repasan todas y cada una de las partidas presupuestarias reduciendo, ajustando y recortando el gasto para que el presupuesto entre dentro de los límites que han acordado previamente con Madrid, excepto el pago de la deuda.

En 2018 en Hego Euskal Herria se pagarán 1.772,9 millones de euros de deuda pública. Esto es, el 11,5% del presupuesto del Gobierno Vasco y el de Navarra juntos se destinará a cumplir con las entidades financieras, sin antes analizar y auditar este pago, a diferencia de lo que se hace con el resto de partidas.

## Gobernu biek lehentasuna ematen diote zor publikoa ordaintzeari, gastuaren gainerako atalen aurretik

**Otra prioridad es el TAV.** El Gobierno Vasco destinará 161,4 millones de euros a esta obra en 2018, mientras que en el presupuesto de Navarra sólo figura 1 millón de euros (si bien tanto el Gobierno de Navarra como el del Estado quieren hacer esta obra).

Y después de esto, una vez que se cumple con Madrid y se paga la deuda, se hace el presupuesto real. Es ahora cuando se termina de repartir y gestionar lo que queda para el gasto social.

Es ahora cuando se ve que en la CAPV el presupuesto destinado a Salud sigue perdiendo peso respecto al PIB y apenas aumenta un 1,5% respecto a la previsión de cierre de 2017. El presupuesto para Educación en 2018 es 108 millones menor de lo destinado en 2009, y se siguen aplicando recortes en las prestaciones sociales, ya que se mantiene el recorte del 7% que se viene aplicando desde 2012 y la subida de la cuantía de la RGI se limita al 1,5% (otro 7% menos al no haberse aplicado en 2017 la subida del SMI), entre otras.

| | CAPV | Navarra |
|---|---|---|
| **PRESUPUESTO TOTAL** | 11.486,4 | 4.157,6 |
| **ADELANTO TAV** | 161,4 | 1,0 |
| **DEUDA PÚBLICA** | 1.346,7 | 426,2 |
| **TOTAL SIN TAV NI DEUDA PÚBLICA** | 9.978,2 | 3.730,4 |

En Navarra el gasto en Salud también pierde peso respecto al PIB, y aumenta sólo 5,7 millones el último año, un 0,5%. En Educación, el aumento es de 4,6 millones de euros, el 0,7%, y se gasta menos que en 2009 y 2010 (se gastaron 3,6 y 16,4 millones de euros más, respectivamente, que lo que se prevé gastar en 2018).

**Es preocupante que estos presupuestos no planteen un cambio de modelo,** que no discutan la ideología de la austeridad y las reglas del articulo 135. La aceptación de estos presupuestos y su tramitación evidencian que se silencia un conflicto, que se renuncia a disputar siquiera elementos de referencia alternativos y a mantener una oposición a leyes y políticas tan injustas como las que establecen que la prioridades son los intereses del capital o las entidades financieras y no el de las personas ni las necesidades sociales.




Es necesario cambiar la lógica de la política presupuestaria, y diseñar el presupuesto y la recaudación conforme a las necesidades sociales.

## EUROPAR BATASUNEKO AZKEN POSTUETAN OSASUNEKO ETA HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOARI DAGOKIONEZ

**Europa mailan osasunean eta hezkuntzan egiten den inbertsioa alderatuz gero** -honetarako 2015eko datuak erabili behar dira, dauzkagun azkenak- agerian geratzen da Hego Euskal Herrian bi arloetan dagoen gastu publikoa urria dela.

Horrenbestez, osasuneko gastu publikoa EAEn BPGaren %5 besterik ez zen eta %5,1ekoa Nafarroan; aldiz, EB-28ko batez bestekoa %7,2koa da, eta esaterako Frantziak %8,2 bideratzen du. Hau dela eta EB-28ko azken postuetan gaude; sei estatu baino ez daude atzerago: Zipre, Letonia, Errumania, Grezia, Luxemburgo eta Polonia. Gastuan dagoen alde hau berdintzeko EAEn aurrekontu-proiektuan jarrita dagoen zenbatekoa baino 1.709,3 milioi euro gehiago gastatu beharko litzateke 2018an, eta 431,5 milioi gehiago Nafarroan.

Hezkuntzako gastu publikoa antzeko dago. 2015eko BPGaren %3,7a izan zen EAEn, eta %3,1ekoa Nafarroan. EB-28an batez besteko gastua %4,9koa zen; areago, Danimarkak %7,1 bideratu zuen. EAE eta Nafarroa EB-28ko azken postuetan leudeke. Batez besteko gastuan Europarekin berdintzeko EAEen 934,2 milioi euro hazi beharko litzateke aurrekontua, eta 651,7 milioi Nafarroan.

## HILEKO KRONIKA
## CRÓNICA DEL MES




# Olentzero aurreratua

› GORKA QUEVEDO

**Abenduaren 24ko gaua magikoa izaten da Euskal Herriko haurrentzat.** Eta hain haurrak ez direnentzat ere, noski. Egun horretan, mendez mende bizirik mantendu den kondairari jarraikiz, Olentzero izeneko ikazkin bat menditik jaisten da etxeetan dauden arbolen azpian norberak eskatutako opariak uztera. Egun berezia izaten da, urte osoan itxaroten den horietakoa. Egun gutxi falta dira Olentzero gure etxeetara etortzeko, baina dagoeneko hainbat lagunek jaso dute Gabonetako oparia.

Azaroa amaieran EAJ, PSE-EE eta PP alderdiek Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-akordioa lortu zuten. Besteak beste, adostu ziren neurrien artean, sozietate zerga %28tik %24ra murriztea adostu zuten. Eta, noski, kopuru hori oraindik ere nabarmen jaitsi ahal izango dute, legeak ematen dizkien murrizketei eta kenkariei esker. Adibide bat jar dezagun: demagun enpresa bat daukazula. Demagun enpresa horrek irabaziak dituela. Eta, ñabardura hau oso garrantzitsua da. Izan ere, EAEko enpresen erdiak eta gehiagok galerak dituela edo irabazirik ez duela aitortzen du. Kopuru honi batzen badiogu 6.000 eurotik beherako irabaziak aitortzen dituzten enpresak, kopurua %78,10era igotzen da. (Nork sinisten du datu hau?)

**Tenemos dos tipos de empresas: las que pagan pocos impuestos y las que no pagan nada**

Baina ez gaitezen desbideratu. Demagun enpresa bat duzula. Eta urtero irabaziak dituzula. Badakizu zenbat ordaindu ko duzun bataz-beste? %15a. Zerga honen bidez biltzen den dirua Barne Produktu Gordinaren %1,3 da. Gaur egun Europar Batasunean 28 estatu daude. Euskal Autonomia Erkidegoa estatu bat balitz zerrenda horren azken postuan egongo litzateke. Hau da, ez dago Europar Batasunean enpresen irabazietan oinarritutako zergetan gutxiago biltzen duenik. Orain, erreforma berriarekin, egoera are eta gehiago besterik ez da okertuko.

## ¿Qué pasará en Cataluña si los partidos independentistas sacan mayoría absoluta tanto en votos como en escaños el 21 de diciembre?

Eusko Jaurlaritza pozik dago errealitate honekin. Iruzurrari aurre egin beharrean –nork sinesten du bi enpresatik batek galerak dituela edo ez duela irabazirik?– edo azken hamarkadetan onartu dituzten zerga murrizketak atzera bota beharrean, bide horretan sakontzea erabaki dute. Pozik dago Eusko Jaurlaritza, eta pozez txoratzen dago patronala. Ez dute euren poza disimilatzeko ahaleginik ere egiten.

Ignacio Zubiri ekonomista da, Ogasunean katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean. Fiskalitateaz eta Euskal Herrian dauden zerga-ereduen inguruan dagoen aditu nagusienetakoa da. EAJk, PSE-EEk eta PPk onartu berri duten erreforma honen inguruan egiten duen azterketa irakurtzea besterik ez dago bere larritasunaz jabetzeko. Zubirik dioenez, erreformak patronalari herritar bakoitzeko 75 eta 100 euro bitartean oparitzea suposatzen du. Gainera, urtean 150-200 milioi euro gutxiago biltzea ekarriko du.

Bai, irakurle maite. Zuk 75 eta 100 euro bitartean oparitu dizkiozu Gabon bezpera honetan patronalari, azken zerga-erreforma adostu duten alderdiek hala erabakita. Katedradun honek berak aipatzen duenez, gurean bi enpresa mota bereizi behar dira zergak ordaintzeko orduan: gutxi ordaintzen dutenak eta ez dutenak ezer ordaintzen. Patronalari, beste behin, Olentzero aurreratu zaio. Eta dena Robin Hooden kontrakoa egiten duen Gobernu honi esker: ez daukanari kendu eta daukanari eman.

**Errepublika defendatzeko hauteskundeak**. “Etorkizuna ikusteko kristalezko bolatxorik ez dugunez, hor utziko dugu gaia. Batek daki zer gertatuko den”. Hala jasotzen zen iragan Landeiaren kronika honetan. Urria bere amaierara heltzen ari zen, eta zaila zer iragartzea zer gerta zitekeen. Abenduak bere lehen egunak bete dituen honetan hainbat gauza argitu dira, baina, oraingoan ere, zaila da iragartzea etorkizun hurbilean zer gerta daitekeen.

Azken kronikatik hamaika gertakizun bizi izan ditugu: 2017ko urriaren 27ean Kataluniako parlamentuak errepublika aldarrikatu zuen, urriaren 1eko independentzia erreferendumaren emaitzek hala aginduta. Espainiako Senatuak, PP, PSOE eta Ciudadanosen bultzadarekin, Espainiako Gobernuari Kataluniako autonomia bere gain hartzeko aukera ematen dion Konstituzioaren 155. artikulua onartu zuen. Espainiako legediaren Mariano Rajoy da orain Kataluniako presidentea. Kataluniako Gobernuaren zati batek erbesterako bidea hartu zuen. Beste erdia atxilotua eta espetxeratua izan zen…

Eta, bien bitartean, hauteskundeak. Abenduaren 21ean, San Tomas eguna. Espainiar legediaren-pean deitutakoak. Testuinguru honetan, bada derrigor egin beharreko galdera: zer gertatuko da independentziaren aldeko alderdiek erabateko gehiengoa lortzen badute boza zein aulkietan? Espainiako hainbat agintarik iradoki duten bezala 155. artikuluaren aplikazioak bere horretan jarraituko luke? Ea zer gertatzen den. Herri bat, herri soberano bat, egunez egun egiten den egitura politikoa da. Soberaniaren bidean sakontzeko eta (orain) suspentsoan dagoen Errepublika irabazten jarraitzeko hitzordua da abenduaren 21ekoa.

**Pariserat banüazü.** Hala kantatu zuen Benito Lertxundik *Oi ama Euskal Herri* kantan. Eta hala egun zuten abenduaren 9an milaka euskal herritarrek. Egun horretan, Bakearen Artisauek deituta, mobilizazio erraldoia egin zen Parisen *Orain, presoak* leloarekin. Ipar Euskal Herriak aho batez euskal preso politikoek bizi duten salbuespen egoerarekin amaitzeko deia egin du. Ekimena bertako hautetsi eta gizarte zibilak elkarlanean egindako lanaren emaitza izan zen. Ezinezkoa da antolatu eta mobilizatu den aniztasun politikoa baina gehiago egotea. Orain, Frantziako estatuari dagokio erantzun bat ematea.

Zoritxarrez, Bidasoaren bestaldean egoera oso bestelakoa da. Arlo guztietan. Eta ez onerako, preziso. Azken hamarkada luzeetan bizi izan dugun gatazka politikoaren ondorioek agenda politikotik kanpo jarraitzen dute. Bestalde, ez dago soberania helburu izango duen inolako prozesurik zabaldurik. Eta, kasu askotan, ez da horretarako borondaterik ere antzematen. Hori da erronka, hain zuzen: prozesu hori habiatzeko eta martxan mantentzeko baldintza objektiboak sortzea.

**Jerusalem.** Ameriketako Estatu Batuetako presidente Donald Trumpek iragarri berri du Jerusalem onartuko duela Israelgo hiriburu ofizial bezala. Gauzak honela, bi urteren buruan enbaxada bertara lekualdatuko duela iragarri du. Iragarpen honek hautsak harrotu ditu, eta Palestinako afera berriz ere hedabideetan leku propioa izatea eragin du.

## Gracias a la rebaja en el Impuesto de Sociedades acordada por PNV, PSE-EE y PP cada ciudadano de la CAPV regalará entre 75 y 100 euros a los empresarios

## El año 2017 nos ha dejado grandes momentos, como las luchas de miles y miles de trabajadores y trabajadoras por una sociedad mejor

Iragarpen sinbolikoa da, azken finean egun Tel Aviv-en dagoen eraikin bat eta bertako funtzionarioak kilometro gutxi batzuk mugitzea suposatuko duelako. Baina, bizitzan, sarri askotan, sinboloek izugarrizko garrantzia dute, eta gauza asko ezkutatzen dituzte. Izan ere, Jerusalem ez da Israel eta Palestinaren artean lehian dagoen hiriburu bat, Israelek militarki konkistatutako eta okupatutako hiria baizik, lehendabizi 1948an eta ondoren 1967an.

Ameriketako Estatu Batuetako enbaxada Jerusalemera eramateak ez du bertako Palestinarren egoera askorik aldatuko. Okupatutako hiri batean bizitzen jarraituko dute, okupazio militar baten ondoriorik ilunenak jasaten. Baina erabakiak berriz ere gogorarazi die palestinarrei bakarrik daudela munduan, ez dutela lagunduko dien potentziarik, ez dagoela bake prozesurik, bi estatuen konponbidea hilda dagoela, nazioarteko legediak eta Nazioarteko Erakunde Batuen ebazpenek ez dutela deus balio… Eta, okerrena dena, egoerak ez duela hobetzeko inolako trazarik. Eta hori da okerrena; itxaropen falta.

**Urte berri on!** 2017. urtea amaitzear dago. Urte gazi-gozoa izan da. Gazia kapitalaren eta lanaren arteko desoreka gero eta desorekatuagoa delako. Gazia egoera izugarri latza delako milaka eta milaka lagunentzat. Gazia munduan zehar dauden hamaika bidegabekeriak bere horretan dirautelako. Baina gozoa ere izan da. Gozoa euren borrokari esker milaka lagunek euren lan eta bizi baldintzak hobetu dituztelako, gozoa mundu hobe bat egiten lagundu dutelako. Azken asteetan hainbat borroka eredugarri izan ditugu: Gamesa-Siemens, Euskadiko Orkestra, CEL Taldea, Perfil en Frío, Urbegi… 2017 osoan makina bat izan dira. Zorionak horiei guztiei. Aurten ere ospatuko ditugu lortu ditugun garaipenak. **Urte berri on!**

# Ahora, l@s pres@s

MILES DE PERSONAS SE MANIFESTARON EL 9-D EN PARIS -A CONVOCATORIA DE LOS ARTESANOS DE LA PAZ- REIVINDICANDO CAMBIOS EN LA POLITICA PENITENCIARIA DE LOS GOBIERNOS FRANCÉS Y ESPAÑOL

**TXIKI: "Azpimarratu nahi dugu Iparraldean dagoen kultura polítikoa, milaka pertsona eta sentsibilitate politiko desberdinak -FN izan ezik- biltzeko kapaza izan dena. Estatu Espainari begira ELAk salatzen du Estatuarekin egiten diren akordioak, normalizazio polítikoa eta presoen gaia ez delako inoiz baldintza bat izaten. Aldebikotasuna defendatzen dutenek azaldu bahar diote euskal gizarteari esparru honetan ere zergatik ez dagoen ezer"**




› LANDEIA

### PETICIONES A LOS GOBIERNOS EN MATERIA PENITENCIARIA

- La supresión del Estatuto de Detenido Particularmente Señalado (en España, FIES).
- El acercamiento y reagrupamiento de los/as presos/as.
- La liberación de los/as presos/as que padecen enfermedades graves.
- La liberación condicional de aquellos y aquellas que, si se aplicara el derecho común, tendrían derecho a ello.

El fin del régimen de excepción que padecen los/as presos/as, pero igualmente sus familias, puede y debe llegar cuanto antes, para que no se cierre la página de la esperanza que se abrió el 8 de abril en Baiona.

**Miles de personas –11.000, según los organizadores**– se manifestaron el 9 de diciembre por las calles de París para reclamar el fin de las actuales políticas penitenciarias que aplican los estados francés y español. Unas políticas que vulneran derechos humanos fundamentales y cuyo fin ayudaría a afianzar el proceso de paz ya iniciado.

Convocada por los Artesanos de la Paz –quienes facilitaron el desarme de ETA el pasado 8 de abril en Baion, la marcha comenzó pasadas las 12.30 horas cerca de la estación de Montparnasse -punto de encuentro de los autobuses y trenes llegados de Hegoalde e Iparralde- bajo el lema *Paz en el País Vasco: ahora los presos*.

Tras el sonido de los cencerros de los *joaldunak*, marcharon en primera fila parlamentarios/as y miembros de los 'artesanos'; tras ellos, familiares de los presos y presas, y detrás, miles de ciudadanos y ciudadanas llegados de toda Euskal Herria. Y es que a los manifestantes que ya se encontraban desde los días previos en París, se sumaron los llegados esa misma mañana: dos trenes especiales salidos de Hendaia y decenas de autocares.

**Día para la esperanza.** La manifestación, que superó las previsiones más optimistas, fue muy ani-

**Bake prozesua sendotzeko ezinbestekoa da presoek eta euren senideek bizi duten salbuespeneko erregimenarekin amaitzea**









mada, y llena de música y color, dando un tono festivo a una jornada marcada por la esperanza en el futuro de este pueblo y las bajas temperaturas.

**Antesala de la manifestación de enero en Bilbao.** Pasadas las 14 horas, los participantes llegaron a la plaza Vauban donde, en francés y en euskera, la representante de Bake Bidea Anais Funosas agradeció a los presentes su presencia y advirtió de la "determinación de llegar hasta el final".

Por su parte, el presidente de la Mancomunidad Vasca, Jean-Rene Etchegaray, reclamó compromiso al ejecutivo galo para modificar las condiciones en que se encuentran los presos de ETA. "El proceso de paz en el País Vasco no puede continuar sin un compromiso del estado francés", aseguró con rotundidad.

Por su parte, el presidente de honor de la Liga de Derechos Humanos, Michel Tubiana, instó a España y a Francia a cambiar su actitud, al tiempo que afirmó que la "lucha por la paz es vida, por lo que no se trata de olvidar el pasado ni los sufrimientos".

## Estatuek ezin dituzte legea eta konstituzio-printzipioak aplikatu gabe utzi

Por último, el artesano de la paz Michel Berhocoirigoin realizó un llamamiento a tomar parte en la manifestación convocada en Bilbao el próximo mes de enero.

**Una trabajo y una pedagogía de 6 años.** En declaraciones antes de comenzar la marcha, el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz Txiki, destacó el mérito del trabajo conjunto de los electos de Iparralde -la movilización recibió el respaldo de más de 1.000 cargos de todos los partidos de Iparralde, excepto del Frente Nacional-. "Lo de hoy es mucho más que una manifestación, es un trabajo y una pedagogía de seis años, que incorpora prácticamente a todo el arco político y sindical de Iparralde". Txiki insistió también en la idea de que lo estados no tienen derecho a no aplicar la ley y los principios constitucionales.

**Varios artistas pusieron ritmo y calor al día actuando en un camión-escenario: Bad Sound System+Muguruza, Mouss et Hakim de Zebda, Fredo de los Ogres de Barbak, Oreka TX y Roce, entre otros.**



# BESTE UNE HISTORIKOA

**Milaka pertsonek parte hartu zuten Parisen Bakearen Artisauek deituta "Orain presoak" lelopean antolatutako mobilizazioan.** ELAren ordezkaritza zabal bat bertan izan zen, Adolfo Muñoz "Txiki" idazkari nagusia buru.

Unai, Naroa eta Aitor hiru militante baino ez dira ELAko militanteen asko eta askoren artean, haiek guztiak joan ziren abenduaren 9an Parisera, frantses estatuko espetxe-politikan aldaketak eskatzera.

Aitorrek goizaldeko lauak laurden gutxiagotan hartu zuen autobusa Derion Hendaiara joateko, eta han Pariseko trena hartu goizaldeko 6etan. Geltoki hartan Unai eta Naroarekin batu zen. Azken horiek Gipuzkoatik abiatu ziren goiz, baina ez hainbeste.

Bidaia ez zen erosoa askorentzat. Batzuek goizaldeko lau eta erdietan hartu behar zuten trena, baina berandu heldu, eta seietako trenean adina lekurik ez denentzat; beraz zutik edo zoruan egin behar izan zuten bidaia. Beste horrenbeste gertatu zen itzulerako bidaian. Hori horrela, Pariseko abentura benetako odisea bat bilakatu zen batzuentzat...

Hala ere, denen iritziz bidaiaren helburuak ondo merezita zeuzkala egindako nekeak. ELAko militante horien esanetan manifestazio hura garrantzizkoa zen, gobernu frantsesak bere espetxe-politikan aldaketak egiteko aukeraren zantzuak bazeuden, eta hala izanez gero, horrek menturaz gobernu espainiarrarengan eragingo luke antzeko erabakiak hartze aldera.

Parisera heltzean oso eguraldi hotza egiten zuen, baina lagunarteko giroa oso beroa zen. Baionan, apirilaren 8ko armagabetze-ekitaldian jendeak eguzki gupidagabea jasan behar izan zuen, Parisen, ordea, zero azpiko tenperaturak.

Eskerrak manifestazioan denak berotu zirela. Oso ugaria izan da, denak datoz bat horrekin, 10.000 lagun baino gehiago, Bakegileen aurreikuspenik onenak gainditu ziren. Manifestazio alaia, ñabarra, giro onekoa eta, apirilaren 8an bezala, une historiko bat bizi izatearen susmoa zuen jendeak.

Azkenean, etxera bueltatu ziren, herri honetako bake-prozesuan beste lerro bat idatzi izanaren pozaz. Denboraz ondo ibili zirenek Eiffel dorreari argazki bat egiteko parada ere izan zuten, bakegileen azken ekimen horren metalezko lekuko mutuaren souvenir hori etxera eramateko.

# “Antolakuntzaren eta borrokaren bidetik noranahi”

AFILIAZIO HANDIA ETA ORDEZKARITZA, ERRESISTENTZIA-KUTXA ETA EZIN HAUTSIZKO BORONDATEAK IZAN DIRA GILTZARRIAK ZAHAR-EGOITZETAKO LANGILEEK GARAIPEN SINDIKALA LORTZEKO



**De izquierda a derecha, las delegadas de ELA en la Mesa negociadora, con el convenio firmado: Soraya, Ana, Maribe, Conchi, Zoa, Gloria, Blanqui, Ainhoa, Marina y Marivi. Su testimonio ha servido de base para la elaboración de este reportaje.**

**› J.JAIO / B.F.A.**

**Bi urtez borrokan eta 370 egunez greban ibili ostean,** Bizkaiko Zahar-egoitzetako Sektoreko ordezkariek honelako ondorioak atera dituzte izandako gatazka luze horretatik: “Lan-gatazka bat ez da irabazten arrazoia gure alde dagoelako edo gure eskakizunak zuzenak eta onargarriak direlako. Lan-gatazkak lanaren, antolakuntzaren, baliabideen eta borondatearen bidez irabazten dira”. “Sindikatu batek ezin du esan prekarietatearekin amaitzea duela helburu, eta aldi berean, gatazkaren aukera baztertzea, gatazkan irauteko baliabiderik ez duelako”. “Esanak haizeak daramatza; bertan dirauena gurea bezalako hitzarmenak dira, borroka luze eta gogor baten ostean”.

**Con organización y lucha todo es posible. Las trabajadora de las Residencias han demostrado que ese es el camino**

Ondorio horiek estrapolatu daitezke Euskal Herriko beste edozein enpresatara. Antolakuntza eta partaidetza. Egoitzetako gatazkak zerbait erakutsi badigu, zera izan da: guztiz garrantzitsua da langileek zuzenean parte hartzea hartu izan diren erabakietan.

**Lehenengo eta behin, negoziazio-mahaira eramateko hitzarmen-plataforma prestatu behar zen.** “ELAko afiliatu guztiek inkesta bat jaso zuten lantokietan, hitzarmenaren negoziazioan zein izan behar ziren puntu nagusiak islatzeko”. Inkesta hartatik atera ziren langileen kezka nagusiak: lanaldia laburtzea, ratioak eta soldata-igoerak. Eta horien gainean prestatu zen plataforma. Bizkaiko ordezkarien batzarrean onetsi eta gero, negoziazio-mahaian aurkeztu zen. Lehenengo bileran iragarpenik txarrenak bete ziren, patronalek oso plataforma atzerakoia aurkeztu zuten, ordurako lorturik geneuzkan eskubideetan atzera eginez. Horiek horrela, eta gure eskakizunak oso geure eginda geneuzkanez, gatazka zen irtenbide bakarra.

**Las trabajadoras de las Residencias interiorizaron que la pelea era el único camino, que la victoria estaba en sus manos y que cuantas más estuvieran en la calle más posibilidades habría de ganar la pelea**

**Batzea zen kontua.** ELAk, ordezkaritza-maila %66koa zuela, ez zuen grebara bakarrik joan nahi; gainerako sindikatuak gatazka-bidera erakartzen saiatu ginen, baina alferrik. Aitzakiak askotarikoak izan ziren, baina langileek argi ikusten zituzten ihesaldiaren arrazoiak: “Erresistentzia-kutxarik gabe, ez LABek, ez UGTk, ez CCOOek ezin diote luzaroan borrokari eutsi. Horiek horrela, ez dakigu nola atera ahal dioten patronalari hobekuntza bat ere”.

2016. urtean hamarka batzar egin ziren lantoki guztietan, jendea prestatzeko, gatazkak luze eta gogor jotzen baitzuen. Greba indarra hartuz joan zen: hasieran egun bateko lanuzteak, gero hirukoak, bostekoak, aurrerago astebetekoak, bikoak, hirukoak, eta azkenean hilabeteko grebak, bata bestearen ondoan. Horrela ia bi urtez eman dugu azken garaipena lortu arte.

Sekulako lana izan da sektoreko ordezkariena, langileak aurrera bultzatzeko. Mezua argia zen: “Gure bide bakarra mobilizazioa da. Garaitzea gure esku dago, eta gutariko zenbat eta gehiago kalera atera, orduan eta errazago lortu gure helburua”.

Greba egitea ez da inoiz erabaki erraza, eta ordezkarien lana eta guzti, aitzakiak nongura agertzen dira: “Batzuen ustez alferrik zen greba egitea; eta guk aurreko negoziazioaren adibidea ateratzen genien, orduan lan-erreforma gure

sektorean ez aplikatzea lortu genuen. Beste aitzakia bat diruarena; eta horri guk gogoratzen genien ELAren erresistentzia-kutxarena, eta lantokietan zenbat eta afiliatu gehiago izan, orduan eta diru gehiagoz hornitu kutxa. Eta hirugarren aitzakiarik erabiliena sindikatuen batasunik eza zen. Hor, eskakizunekin ados egon arren, grebara deitu ez zutenei azalpenak eskatu beharko zizkietela erantzuten genien.

**Nola eutsi gatazka bati hain luzaroan?** Erantzuna zera da: antolakuntza eta... elastikoa maitatzea. "Egin genuen lehen gauza lantalde bat sortzea izan zen, eskualde guztietako hamar bat ordezkariz osatua. Greba-andana berri batera deitzen genuen bakoitzean, jendaurrean zelako ekintzak eta non egitea erabakitzen genuen". Ordezkari horiek langileekin eta beste ordezkari batzuekin biltzen ziren, ideiak jasotzeko. "Gure arteko komunikazioa, bi norabideetan, joan eta etorrikoa, oso garrantzizkoa izan da" azpimarratu dute "elkarri emandako ideiak ez ezik, sortuz joan diren harremanak, afektiboak eta pertsonalak, oso estuak izan dira".

Elastiko berdea, zahar-egoitzetako langileen borrokaren ikur hori, bizipenen elkartrukatze amaigabe horren emaitza da. Elastiko hori sektoreko borroka-jantzia bilakatu da, langile-kidego osoaren nortasun-agiria, gatazkaren hasieran ELAkide ez ziren langileentzat ere bai. "Elastiko horrek taldekide sentiarazi gaitu, sekulako indar kolektiboa eman digu" esan dute sektoreko ordezkariek. "Elastiko berdea jantzi, eta superheroiak sentitzen ginen, edozein gauza egiteko gai" azaldu dute irribarre batez.

**Sindikatu oso bat atzean.** Gure arteko harremanak eta kidegoa antolatzea alderdi erabakigarriak izan badira, sindikatuaren rola ere bai. "Ez gara inoiz bakarrik sentitu. Sindikatua gure ondoan





## Un sindicato no puede decir que va a luchar contra la precariedad y descartar ir al conflicto porque no tiene medios para sostenerlo en el tiempo

egon da, eta gure alde lan egin du" diote. "Martxoaren 8an, maiatzaren 1ean, Kongresuan... -gomutak gogora ekarriz- proiektu soziosindikal bereko milaka kideren adorea sentitu dugu". Gure antolakundetik jasotako laguntzak aipatzerakoan, langile horiek bereziki gogoratzen dute Genero Berdintasunaren Arloa, hori giltzarria izan da mugimendu feministarekin lotzeko, eta zainketen inguruko erakunde sozialekin lotzeko.

Borroka hori lan-arlotik harago zihoan, eta hori gizarteratzen lortzea izan da garaipenaren beste giltzarri bat. "Sinesgaitza dirudien arren, aldundiari eta enpresei axola gutxi zitzaien gure laneko prekarietatea, baina gero ez ziren sentitzen horren eroso; zahar-etxeetan gertatzen zena eztabaida publikora atera genuenean (egiturazko baliabiderik eza, arreta-kalitatearen gainbehera...), Babestuz senideen elkartearen eta beste elkarte batzuen babesa lortu genuenean, pentsiodunak gure eskaeren alde agertu zirenean, gure sostenguak ugaldu eta biderkatu zirenean. Iritzi publikoaren borroka irabazi dugu, eta gureganako begikotasuna eta elkartasuna eurrez sortu da".

**Bi urte luzez borrokan, baina beti aurrera "Erresidentziak borrokan" lelopean.** Beldurra irabaztea, etsi gabe jarraitzea hori izan da garaipenaren beste giltzarri bat. Kolpe ugari jaso ditugu, baina hala ere jarraitu dugu. Bereziki eraso gogorrak izan dira lankideak kaleratu zituztenean (gero epaitegietan deusezak deklaratuak), edo grebaren erdian patronalak deitu zuenean eskaintza iraingarri bat egiteko (6 euro-ko soldata-igoera eta 2 orduko lanaldi-murrizketa). "Haserreak asko asaldatzen du" gogoratzen dute orain irribarre batez. Edo 2016ko Gabonetan, akordio bat lortzea ikusten zutenean, eta aldundiak zaharrei tratu txarrak emateaz akusatu zituenean; edo aldundi horrek berak %100eko gutxieneko zerbitzuak eskatu eta lortu zituenean sektorerako, greba izugarri indargabetuz...

Zalantzarik gabe, emakume horien egonarri eta iraunaren sekretua langile-kidegoaren indarrean datza. "Batek adorea galtzen zuenean, gainerakook altxatzen genuen, eta horrela. Denok akitu gara inoiz, eta denok altxatuak izan gara". Lankide batek esaten zuenez "nekatuta bezain sinetsita nago".

**Baina garaipenaren ostean, ez gara barealdian egonean geratu.** Lantoki guztietan jarraitu behar dugu hitzarmenaren edukia batzarretan azalduz. Ahaldunduta, harro eta pozik kontatzen diete lankideei borroka egiteak merezi duela, beren borroka eredutzat hartzen dutela beste sektore batzuetan, eta ez bakarrik feminizatu eta prekarizatuetan, eta hitzarmen on bat lortzea ez dela esparru-arazoa, baizik eta afiliazioarena, antolakuntzarena eta baliabide egokiak izatearena (erresistentzia-kutxa).

"Antolakuntzaren eta borrokaren bidetik noranahi" laburbildu dute. Eta beren kasuan ez dira hitz hutsalak. Ondo baino hobeto frogatu dute.

## En la medida que nuestra lucha iba sumando apoyos y simpatías, la Diputación y las patronales empezaron a sentirse incómodos

# "Hemos peleado hasta el final"

A PESAR DE QUE EL ACUERDO EN EL GRUPO CEL NO ES EL DESEADO, JOSEAN FERNÁNDEZ DESTACA LA LUCHA Y LA DIGNIDAD DE LA PLANTILLA EN LA DEFENSA DE LOS EMPLEOS Y EL FUTURO INDUSTRIAL DE LA COMARCA



**Josean Fernández -el tercero por la derecha- junto a delegados de ELA en CEL.**

**› GORKA QUEVEDO**

**18 de mayo del 2017.** El Gobierno Vasco se desprende del 40% de las acciones de la matriz del Grupo CEL para eludir cualquier responsabilidad industrial y financiera. Este grupo industrial, dedicado al sector papelero, agrupa cuatro centros de trabajo –dos en Artzeniega, uno en Zalla y otro en Gueñes–, siendo la principal actividad industrial de una comarca tan castigada estos últimos años como Enkarterri, dando empleo a más de 254 personas de modo directo y hasta un total de 300 si se suman las diferentes contratas.

**23 de mayo.** Las y los responsable sindicales de las cuatro plantas que componen el Grupo CEL –10 ELA, 1 LAB, 1 UGT– se reúnen con el Departamento de Industria del Gobierno Vasco. Desde el departamento encabezado por Arantza Tapia se dice que "están en posición de salida del accionariado". Mienten. Dos semanas más tarde de esta cita la plantilla sabe, por medio de la empresa, que para esa reunión ya habían salido del accionariado.

**26 de mayo del 2017.** La dirección del Grupo CEL comunica a los comités de empresa que ha solicitado en el juzgado un preconcurso de acreedores. Traslada que la viabilidad de la empresa pasa por el 20% de reducción salarial sin garantías de futuro. Además, se comunica que los accionistas mayoritarios –Gobierno Vasco, con un 40% de acciones a través de EZTEN sociedad capital riesgo, e Indarkia, con un 45%– han salido del grupo. Una salida con premeditación y alevosía. De este modo, quienes ostentaban el 15% del accionariado pasan a controlar la compañía a través de Zurbost Gestión S.L.

**Así comienza una historia de chantajes y coacciones a la plantilla del Grupo CEL.** Unos trabajadores y trabajadoras que una semana más tarde se encuentran con las plantas paradas por falta de suministro eléctrico o facturas sin pagar de cuando el Gobierno Vasco era accionista mayoritario. Algunas de esas máquinas, además, propiedad de la Diputación. Chantajes y coacciones que continuaron hasta el día después de la fecha marcada por el Administrador Concursal para que el Grupo CEL fuera a liquidación y se extinguieran todos los contratos de trabajo.

> "Enkarterriak enpresen hilerri bat bihurtu dute. Zorionez, CEL Taldeko langileen borrokari esker, enpresa hau ez da sartuko hilerri horretako zerrenda ilunean"

> "Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrera lotsagarria izan da. Gatazkan zuren erantzukizunari muzin egin eta beti agertu dira enpresaren interesen alde, horrek langileen kontra jotzea suposatzen zuen arren"

En esta coyuntura, el 23 de noviembre la mayoría de los comités de empresa llegó a un acuerdo con el inversor italiano Lucart sobre las condiciones de trabajo de la plantilla del Grupo CEL. Acuerdo respaldado por el resultado de las votaciones de la asamblea general: 150 votos a favor del acuerdo, 15 en contra y 10 en blanco.

Josean Fernández es el responsable de ELA en el Grupo CEL. No tiene reparos en reconocer que no es un buen acuerdo. "Se recogen cuatro despidos traumáticos que entendemos no deberían haberse producido. Los salarios de cerca del 80% de la plantilla se reducirán en torno al 9%, y el resto en un 20% de la masa salarial. En este sentido es evidente que no podemos estar contentos".

**Lucha ejemplar.** Sin embargo, Josean Fernández se queda con la lucha, "muy digna", tal como subraya con rotundidad. "La lucha de la plantilla ha sido ejemplar. Todos estos meses hemos realizado muchísimas movilizaciones, tanto en Enkarterri como ante las Administraciones Públicas. Han sido semanas muy duras. Es verdad que no es el acuerdo que deseábamos, pero también hay que destacar que gracias a esta lucha hemos conseguido mejorar considerablemente los planteamientos iniciales, que eran un auténtico drama tanto en cuanto a destrucción de empleo como al de las condiciones de

trabajo. Gracias a esta lucha se ha conseguido mantener empleo, pasar las indemnizaciones mínimas a 50.000 euros, mejorar las prejubilaciones, una bolsa de trabajo para todos los despedidos durante 5 años…"

**"Lo de la Diputación y el Gobierno Vasco ha sido vergonzoso".** Josean Fernández habla tranquilo, pausado, pero su tono se eleva cuando se le pregunta en torno a las dos principales administraciones públicas implicadas en este conflicto: la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco. "Una vergüenza, ha sido una vergüenza", repite amargamente.

"El Gobierno Vasco desapareció en mayo de la empresa con el 40% de las acciones. Ha sido el máximo responsable de que entráramos en concurso. En aquella fecha nos señaló que si había un proyecto industrial serio lo apoyarían. Tras meses sin saber nada de ellos, en la ultima reunión, a finales de octubre, nos señalaron que las posibles ayudas para el Grupo CEL estaban en la página web del Gobierno Vasco. Nos parece una actitud absolutamente injustificable".

**"Egiari zor ez da nahi genuen akordioa, baina langileen borroka goraipatu beharra dago. Beti eman dute aurpegia, baldintza oso gogorretan"**

Tampoco ahorra críticas para la Diputación. "No podemos olvidar que era la propietaria de algunas máquinas del Grupo CEL. No se han implicado en garantizar las condiciones laborales y el mantenimiento de todos los puestos de trabajo. Y ello a pesar de que en octubre todos los partidos aprobaran en las Juntas Generales de Bizkaia por unanimidad una moción en favor de que no hubiese despidos. No han querido o sabido apoyar a una comarca tan degradada industrialmente como Enkarterri. Han estado siempre codo con codo con el Administrador Concursal", denuncia.

**Nefasta gestión.** Josean Fernández defiende la viabilidad del proyecto industrial que representaba el Grupo CEL. "Durante todo este tiempo hemos demostrado con datos que estábamos ante un proyecto industrial viable y con futuro. La plantilla ha pagado en sus carnes la nefasta gestión empresarial de la dirección del anterior grupo empresarial, Zurbost. Su pésima gestión abocó al concurso de acreedores".

Una gestión nefasta que hace extensible al Administrador Concursal. "Desde el primer momento se posicionó con Zurbost. Ha sido uno de los responsables de la destrucción de las condiciones laborares, ha impuesto fechas y condiciones que han acotado la posible entrada de otro inversor. Por ejemplo, el inversor catalán que planteó en su última propuesta cero despidos, mantenimiento de condiciones de trabajo y una merma salarial con recuperación al 2021. Sin embargo, tanto este grupo como otros inversores decidieron a última hora no presentar la oferta".

"En todo este proceso han sido muy importantes los plazos que ha ido marcando el Administrador Concursal, así como otras acciones a tener en cuenta, como el ERE de Extinción. En fase de concurso se han interesado diferentes posibles inversores. En ELA hemos estado negociando con ellos de cara a garantizar las condiciones de trabajo y el pleno empleo. Sin embargo, con la complicidad de las instituciones públicas, el Administrador Concursal siempre ha favorecido los intereses empresariales".




**Y ahora, ¿qué?** "Estamos sufriendo una desindustrialización que amenaza gravemente el futuro de toda nuestra comarca", denuncia Josean Fernández. "Recordemos, por ejemplo, los cierres de Reckitt Benckiser, Pastguren, Arkema y Kemira Thyssenkrup, Mure, La industria auxiliar del mueble… Pero gracias a la pelea de la plantilla, CEL no se ha sumado a esta larga lista".

"Dicho esto, –añade–, quiero proclamar con mucho orgullo que ELA es la única que defiende proyectos industriales en Enkarterri. Es muy poca la industria que queda y, por otro lado, los proyectos industriales existentes están basados en unas condiciones laborales que solo pueden ser mejorados por la lucha sindical. Ahí tenemos el ejemplo de TMB en Alonsotegi, donde la lucha de la gente de ELA durante 6 meses en huelga sirvió para lograr un importante acuerdo colectivo".

**"Borrokan aritu den jendea gure eskertzarik beroena merezi du. Euren lan zintzoari esker posible izan da industria proiektu hau bizirik mantentzea"**

En referencia a los otros sindicatos de los Cómites del Grupo CEL, este responsable sindical cree que no han tenido la implicación que debieran. "Nos molesta que, por ejemplo, desde LAB se nos acuse de haberles excluido cuando han sido ellos los que no han aparecido en muchas reuniones. Ni UGT ni LAB estuvieron en la última asamblea general. No nos parece de recibo".

**Reconocimiento a la plantilla.** Cuando el administrador concursal cierre definitivamente el concurso, Lucart será la nueva propietaria del Grupo CEL. La plantilla será subrogada a este grupo italiano. Entonces comenzará una nueva época.

Echando la mirada atrás, Josean Fernández se muestra orgulloso de la lucha realizada por la gente de ELA en este conflicto. "Nuestros afiliados/as y militantes se han implicado a tope, al igual que la gente de la comarca, que también se ha movilizado. Desde el minuto uno nos han presionado con la liquidación de la empresa en caso de no llegar a acuerdo. Sin embargo, nuestra sección sindical ha realizado un trabajo honesto para mantener la actividad en la empresa y el mayor número de trabajadores y trabajadoras en la plantilla. A todas esas personas, mi más sincero reconocimiento", rubrica.

# Langile borroka ez bada feminista, patriarkala da

IRANTZU VARELA, EMAKUME FEMINISTA ETA FAKTORIA LILAKO KOORDINATZAILEA



› NAGORE URIARTE

**Genero ekitate prozesuan murgilduta dagoela antolatu du ELAk aurtengo Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurkako Eguneko ekitaldia.** Zure boterea, nire jazarpena lelopean antolatutako hitzaldian, indarkeria matxistaz hausnartu genuen Irantzu Varela Faktoria Lilako koordinatzailearekin.

**-Zure boterea, nire jazarpena dio leloak. Biolentziak botere nahia du atzean ezinbestean?**

-Bai. Emakumeon aurkako biolentzia guretzako irakaspena da: ez dezazue protestarik egin, egon isilik, desberdintasunean bizitzeak suposatzen duen indarkeria iraunkorrak bere horretan jarraitu dezan. Arazoa da naturaltzat hartzen dugula, beraz, aldaezina iruditzen zaigu, hortaz, onartu beharrekoa. Naturalizazio prozesu horren ondorioz, egunerokotasunean sortzen diren jarrera matxistak ez zaizkigu arrotzak egiten, ez emakumeoi, ez gizonei, ezta erakundeei ere. Gauza bera gertatzen da dominazio sistema guztietan; esklabotzan adibidez, naturalizazioa erabatekoa zen.

EEUUetako ekoizlearen jazarpen kasuak, ordea, haserrea eragin du...

Muturrekoa sexu jazarpen kasu bat izan delako. Baina alboratu dezagun ekoizle horrek sexua bilatzen zuenaren ideia, boterea zuela frogatzea zen bere benetako helburua. Eguneroko egoera xumeenetan ere gertatzen da. Kaletik goazenean, adibidez, eta gizon bat *lorak botatzen* hasten denean. Ez da sedukzio kontua, ez dago gurekin ligatzen, bere boterea frogatzen ari da, kalea berea dela –eta ez gurea– adierazten, alegia, zure gorputzari buruz nahi duena esateko zilegitasuna duela azpimarratzen. Oinarrian, egoera bietan dago boterea erakutsi nahia. Halere, eraso bortitz bat

## La mitad de la población tiene miedo de la otra mitad; es responsabilidad del que ejerce el miedo plantearse qué esta haciendo, individual y colectivamente. Vivir con miedo es violencia

## El proyecto de país que planteas como sindicato tiene que estar atravesado por el feminismo

dagoenean bakarrik asaldatzen gara, gainontzeko matxismo egoerak naturalizatuak ditugulako.

**-Biztanleriaren erdia beldurrez bizitzea adibidez?**

-Bai. Emakumeok beldurrez bizi gara eta izua, bere horretan, zapalkuntza da, gu isilik mantendu arazteko sistema eraginkorra. Orain urte batzuk Mugimendu Feministak honako lelo hau aukeratu zuen: “Ez dut ausarta izan nahi, librea izan nahi dut”. Hori da gakoa: biztanleriaren erdia beste erdiaren beldurrez bizi da, beraz, beste erdiaren erantzukizuna da zer egiten ari den aztertzea, modu indibidualean zein kolektiboan. Emakumeok ez gara jaiotzez beldurtiak. Beldur gara hala hezituak izan garelako, izua erraietaraino sartu digutelako, baina bada garaia geure buruari aitortzeko beldurra biolentzia dela. Gauez gizon bat igogailuan sartzearen beldur izatea indarkeria da, bortitza gainera.

**-Beldurra ematen digu beldur garela aitortzeak?**

-Bai, noski. Opresio sistema batean bizi zarela eta zu zapaldutakoen aldean zaudela jakitea putakeria bat da, baina gainera, horretaz jabetzen zaren momentuan badakizu zerbait egin beharko duzula egoera iraultzeko, ezin izango duzula jarraitu ezer gertatuko ez balitz bezala. Halere, bada horrela bizitzen jarraitu nahi duen emakumerik, bere burua engainatzen jarraitzea errazagoa delako.

**-Errazagoa oprimituta bizitzea?**

-Bai. Simone de Beauvoirrek ondo azaldu zuen: emakume guztiok aldi berean desobedituko bagenu, heteropatriarkatua segituan bukatuko zen; patriarkatuak ezingo luke biziraun emakumeen konplizitaterik gabe.

**-Orduan zergatik ez da planto egiten?**

-Desobedientziarik txikienak ere zigor soziala dakarrelako: depilatzeari uko egitea, loditzea, lesbiana izatea, gizonentzat erreserbatutako lanpostuetan aritzea... denak du zigor soziala. Hori

jakinda, zenbait emakumek nahiago dute heteropatriarkatuaren konplize izateak ematen dizun sari kaxkarra hartzea, aske izateak eragingo dizun zigorra pairatzea baino. Baina kontuz! Emakume hauek ez dira inondik inora euren buruak saltzen ari, argi euki hori! Biziraun nahian dabiltza, biziraupen estrategia hutsa da. Horregatik da hain garrantzitsua feminismoa; emakume guztioi gainditze kolektiborako estrategia eskainiko digulako.

**-Feminismoak askatze kolektiborako tresnak ematen badizkigu, sindikalgintzak ere bai?**

-Bai. Bizkaiko Erresidentzietako gatazka horren adibide argia da. Zahar egoitzetako langileek euren rola zalantzan jarri dute, lan merkatuan ezezik, etxean ere. Gatazka bukatzean ahaldundutako amazona ikaragarriak ziren, espazio publikoa konkistatua zutenak, korbatadun gizonekin aurrez aurre negoziatzeko beldurrik ez zutenak.

## El machismo diario no nos parece tan brutal porque lo hemos naturalizado, tanto ellos como nosotras. Pasa igual en todos los sistemas de dominación, como en la esclavitud

**-Izan zaitezke sindikalista feminista izan gabe?**

-Langile borroka ez bada feminista, patriarkala da. Borroka guztiek izan behar dute feminista, bestela, opresio jakin baten kontra arituko zara, baina aldi berean zapalkuntza heteropatriarkalean sakontzen lagunduko duzu. Langile borrokak, definizioz, feminista izan behar du: Euskal Herriko pobreen %70 emakumeak gara, %27 gutxiago kobratzen dugu, datu horrekin bakarrik nahikoa izan beharko litzateke. Baina are sakonagoa da auzia: ezin duzu borrokatu opresio baten kontra bestelako zapalkuntzak aintzat hartu gabe. Angela Davisek Bilbon esan zuen bezala, “Feminismoak antikapitalista, ekologista eta arrazismoaren nahiz kolonialismoaren aurkakoa izan behar du, bestela, feminismo burgesa da, kaka hutsa”.

**-Gauza bera gertatzen da langile borrokarekin?**

-Hala da. Feminismoak ez badu zeharkatzen, klase menperakuntzaren kontra egingo du baina ahaztuko du klase horren erdia emakumeok garela, beraz, gure desberdintasunak sakontzen dituen sistemaren konplize izango da. Sindikalgintza ari da barneratzen feminismoaren agendak eta langile agendak

## La lucha obrera tiene que ser feminista por definición. El 70% de la gente pobre en Hego Euskal Herria son mujeres; eso ya debería ser suficiente

eskutik helduta joan behar dutela. Lehen emakumeok ez ginen ezta prekarioenak ere, prekarizatuak zeuden gizon langileen emazte, arreba, alabak baino ez ginen… Gogoan daukat nire langile jatorria: *diru hornitzailea* zen aitaren lana defendatzera ateratzen ginen ama eta biok manifestazioetara. Feminismoari esker, hori ere aldatu da, gure eskubide propioak defendatzera goaz plazara, lehen pertsonan.

**-Bada pentsatuko duenik: lehenengo langile borroka, gero gerokoak…**

-Gizon ezkertiarrek askotan esan didate klase borroka desbideratzen dudala. Zapaltzaile baten diskurtsoa da hori, klase desorekaz arduratuta, baina bere genero pribilegioekin gustora bizi den pertsona. Enpresaburua balitz, esplotatzailea izango litzateke. Demagun emakume beltz batek guri leporatzea gure feminismoak ez duela arrazismoaren aurkako kontzientziarik eta guk erantzungo geniola: goazen lehenengo heteropatriarkatua gainditzera eta ondoren konponduko dugu zurea. Onartezina ezta? Ba gauza bera da. Zenbat eta feministagoa izan, hobeto ezagutuko ditugu elkar gurutzatuta dauden opresio guztiak, dibertsitatea alboratzea beste helbururik ez dutenak, alegia, gizon zuria eta heterosexuala ez den oro zigortzen dutenak.

**-Hitz egin dezagun laneko “mikromatxismoez”…**

-Oinarrizkoenetik hasiko naiz: uneoro jatorra eta irribarretsu agertu beharra. Oso erasokorra da hori. Beste bat: itxura fisikoa. Unibertsitateko gizon ezkertiar ezagun batek esan zidan planteatu beharko nuela ea ze puntutaraino joan nintekeen lanera modu probokatzailean jantzita, eta, berdin jarraitzekotan, ondorioak onartu beharko nituela. Berdin du presidentea, garbitzailea edo soldatzailea zaren, denaren gainetik emakumea zara eta erakargarria izan behar duzu, baina betiere, neurrian.

**-Emakume izatea ahultasuna da lanean?**

-Emakume izatea ez da ahultasun bat, emakumezko bezala irakurria izatea da da ahul bilakatzen zaituena.

## ¿QUÉ PUEDE HACER ELA?

**Hacia afuera, incorporar la agenda feminista a la agenda política; el proyecto de país que planteas como sindicato tiene que estar atravesado por el feminismo. Hacia dentro, siento decirlo así, pero todas las organizaciones mixtas son patriarcales por definición, ya que requieren de estructuras jerárquicas. Hay que revisar a fondo las estructuras pero, sobre todo, la cultura organizacional; tú puedes nombrar a una secretaria general, pero si en una reunión se escucha más la palabra de un hombre, entonces no vale de nada. El machismo se supera cambiando las prácticas individuales de cada cual y haciendo una apuesta por cambiar las colectivas.**



**Soraya García, en nombre de las trabajadoras de las Residencias de Bizkaia, entregó a Irantzu Varela la camiseta-símbolo de su lucha y un cuadro en reconocimiento al apoyo recibido durante su larga pelea. El 24 de noviembre, ELA organizó una jornada de formación en torno al acoso sexual en el trabajo en la que tomó parte esta conocida feminista.**

EL POLITÓLOGO DE LA UNIVERSIDAD DE BARCELONA PARTICIPÓ EN EL ACTO DE ELA "#ESTATUTUAHILDA, GERNIKAKO EKITALDITIK 20 URTE", CELEBRADO EN DONOSTIA EL PASADO 6 DE NOVIEMBRE

# Jordi Muñoz: "Es el conflicto democrático el que ha creado independentistas, y no tanto el discurso identitario"




› **IVÁN GIMÉNEZ**

**Si una cosa ha demostrado el Estatuto de Gernika es que "20 años no es nada".** En 1997, ELA declaró que "el Estatuto está muerto", y dos décadas después, ahí sigue, agonizando pero en vigor. Para valorar este fenómeno, ELA organizó el pasado 6 de noviembre en Donostia una jornada bajo el lema "#EstatutuaHilda, Gernikako ekitalditik 20 urte", con un subtítulo que nos pone frente al espejo de lo que supone el derecho a decidir y la lucha por la democracia: "¿Qué nos enseña Catalunya?".

Con esa idea nos visitó Jordi Muñoz (Valencia, 1979), doctor en Ciencia Política y profesor de la Universidad de Barcelona, una voz que va cobrando autoridad en el debate público catalán, con un discurso sencillo, afable y ajeno a palabras épicas y grandilocuentes. Jordi Muñoz pisa la calle, y se le nota. Piensa, debate y sabe explicar las conclusiones de esa reflexión. Y nos dejó varios hilos de los que tirar para desenredar la madeja del Procès, con un lugar importante para la autocrítica, en ocasiones ausente cuando la virulencia del conflicto obliga a adhesiones totales y antagonismos sin matices.

"En 2006, el apoyo a la independencia en Cataluña rondaba el 13%, y ahora estamos donde ya sabéis. ¿Cómo hemos llegado hasta aquí?".

**"Kataluniako gizartearen eta parlamentuaren gehiengoak galdera bat egin dio Espainiako demokrazioari, baina erantzuna Estatuak eman du, ez Gobernuak soilik. Eta bortxakeriaz eta nagusikeriaz erantzun du"**

**U-1eko erreferenduma dela-eta, esan daiteke bozketaren alde ez dagoena Guardia Zibilaren alde dagoela. Ez dago erdibiderik**

Además de los sucesos políticos ya conocidos (cepillado del Estatut, campaña anticatalana del PP, recortes sociales...), Muñoz añade un factor poco conocido. "En un momento dado, la opción de la independencia se normaliza, hay un salto de escala cuando en muchas comarcas asociaciones no políticas colaboran en las consultas de autodeterminación y, de alguna manera, se politizan. Eso va muy ligado al gran acierto del movimiento soberanista, al plantear este proceso en términos de conflicto democrático". Un elemento que suma para la causa a un gran sector inicialmente no independentista, ni siquiera nacionalista.

**Conflicto democrático.** "Llega un momento en que la gente solo ve dos opciones: independencia o seguir como está. Pero el statu quo se ha movido hacia el centralismo, y por tanto la gente que podía querer más autogobierno se ve cada vez más cerca de la independencia, y más lejos del statu quo. Ésta es otra de las claves", subrayó Jordi Muñoz. En otras palabras, el embudo se va estrechando y ya no van quedando márgenes, ni matices ni espacios grises o ambiguos. En el referéndum del 1-O, puede decirse -simplificando- que quien no defiende las urnas, se pone del lado de la Guardia Civil. No queda nada en medio.

## Estatuaren erantzun bortitzaren aurrean, Jordi Muñozek mugimendu katalanaren jokabide baketsua nabarmendu du

Además, la recentralización "nos había impedido hacer frente a las consecuencias de la crisis, a la posibilidad de autogobernarnos", lo que convierte la cuestión en "un conflicto democrático sobre la soberanía: para qué queremos la independencia y qué queremos hacer con ella". Ahí reside la principal explicación del gran auge del independentismo en muy pocos años (en las elecciones de 2010, solo 14 parlamentarios eran independentistas; en 2015 salieron elegidos 72). "Ese crecimiento no vino precedido de un cambio en la estructura de las identidades nacionales de Cataluña. Es decir, no hubo un rechazo a la identidad española como condición previa a ser independentista -algo que siempre habíamos pensado-. Al contrario, en Cataluña primero se da el crecimiento del independentismo y luego se produce el desplazamiento identitario hacia el sentimiento catalán". En otras palabras, es el conflicto de raíz democrática el que crea independentistas, y no tanto la cuestión identitaria.

"La mayoría social y parlamentaria catalana ha planteado una pregunta a la democracia española -explica Jordi Muñoz-, pero quien ha contestado ha sido el Estado, no sólo el Gobierno español. Y lo ha hecho de forma violenta y autoritaria. Por lo tanto, hemos aprendido a hostias que lo que teníamos delante no era la democracia española, sino el Estado español, nada parecido a los casos de Reino Unido-Escocia o Canada-Quebec".

Esta comprobación es todo un aprendizaje: "A mí me da la impresión de que el Estado ha respondido en Cataluña con un manual que ya aplicaron en el País Vasco. Eso de que en ausencia de violencia podía hablarse de todo, pues... hemos comprobado en carne propia que no es verdad". De hecho, hay varias personas en la cárcel (políticos y activistas sociales) porque "el auto de la Audiencia Nacional está redactado en unos términos que recuerdan mucho al 'todo es ETA' que aplicaron en Euskal Herria". Utilizando esa narrativa, diseñada por los poderes del Estado y difundida por los medios de comunicación masivos, "se podrían detener a miles de personas, aumentando la presión represiva o reduciéndola según su conveniencia política".



Jordi Muñoz (dcha), junto a Txiki y Aiala Elorrieta, del departamento de Formación.

**Frente a esa respuesta violenta, Jordi Muñoz destaca la conducta pacífica del movimiento catalán:** "Incluso sectores que no contaban de partida con esa sensibilidad se han ceñido disciplinadamente a la estrategia no violenta". Quizá el límite para esta estrategia fuera precisamente la posibilidad de que el Estado subiera un escalón en su respuesta violenta tras declarar la independencia, algo que formalmente ocurrió el 27 de octubre. "A continuación, Puigdemont desaparece, quizá para no forzar los límites del Estado; muchos pensaban que el Estado acabaría negociando, pero se ha visto que no", lo que pone sobre la mesa otro nuevo concepto político: la ingenuidad estratégica. "Un nivel de ingenuidad política es necesaria", defiende Jordi Muñoz, "para avanzar y construir; no se puede liderar un movimiento diciéndole a la gente que nuestro objetivo es imposible y que nos van a matar". Ahora "han caído las máscaras del Estado y hemos visto lo poco que va a hacer Europa; conocemos mejor el terreno que pisamos".

Precisamente la Unión Europea es uno de los actores que más ha decepcionado a los catalanes. "Hemos infravalorado la capacidad de chantaje del Estado español en Europa -advirtió Jordi Muñoz-. Tras el Brexit y las tensiones en otros lugares, la UE no puede permitirse perder otro Estado. Y al mismo tiempo, nos hemos dado cuenta de que el Estado español preferiría ser expulsado de la UE que perder Catalunya". Ambos factores materializan una amenaza muy inquietante: nadie externo va a poner límites de verdad al Estado español en su conflicto con Cataluña, o con Euskal Herria, llegado el momento.

**¿Y ahora qué?** Sin hacer labor de adivino, Jordi Muñoz aportó otra clave de futuro. "Es muy importante alcanzar un acuerdo amplio en Cataluña, aunque sea en lo procedimental. Es decir, si el independentismo gana por mayoría y va a desarrollar su idea de república, hay que lograr que el resto de la ciudadanía lo acepte, es decir, que casi todo el mundo dé por bueno el procedimiento democrático que se acuerde, y que las nuevas instituciones sean reconocidas como legítimas". De ahí que Jordi Muñoz hablara de "despolarizar" la sociedad catalana, ya que todo el mundo va a seguir conviviendo. "Eso no quiere decir que se renuncie a la independencia; en eso no tenemos que estar todos de acuerdo; ni tampoco renunciar a la unilateralidad frente al Estado, porque nunca va a existir otra vía. Pero a lo mejor no conviene dar más pasos de manera unilateral dentro de Catalunya".

## Muñozek proposatu du gizarte katalana "despolarizatzea"; eta horretarako, Katalunian alde bakarreko pauso gehiagorik ez ematea gomendatu du

# HACINAMIENTO EN BIDEBERRI



› GORKA QUEVEDO

***Una noche en la ópera* fue la sexta película de los hermanos Marx**. Parte de la película sucede dentro de un barco en el que Groucho ha metido a las grandes estrellas de la Ópera de Milán con destino a Nueva York, donde tienen programado actuar. La escena más conocida de esta obra cumbre del cine de humor sucede en el pequeño camarote de dicho barco que ocupan los hermanos Marx, donde a la hora de la cena se juntan hasta 15 personas.

**Algo así sucede en Bideberri.** Lo que pasa es que no hablamos de ninguna comedia, sino de los centros de acogida de menores no acompañados de Gasteiz. Desgraciadamente, la situación de hacinamiento no es nueva. Al día del cierre de este *Landeia* había 27 menores en Bideberri I –han llegado a haber 29–, y 16 en Bideberri II. ¡29 personas en un espacio previsto para 12 menores, 15 como máximo! Silvia Sánchez, trabajadora de Bideberri y delegada de ELA, único sindicato con representaciónen el Comité de Empresa, denuncia esta situación. "No hay camas, hay personas usuarias que tienen que dormir en bancos, en el sofá o el suelo… las duchas y baños son absolutamente insuficientes… se han tenido que organizar turnos de comida porque no hay espacio…"

Una grave situación a la que hay que añadir la propia que sufren los usuarios de Bideberri. "Hablamos de menores de edad, extranjeros, personas que en muchos casos son recién llegados a Euskal Herria y no hablan castellano –mucho menos euskera–, gente sin ninguna red social que los pueda acoger… Si a esto le añadimos una situación de hacinamiento, la tensión es bastante elevada".

**La tensión se palpa durante todo el día.** "Hay ocasiones en los que se juntan 20 chavales en una pequeña sala. Bien. ¿Qué programa se pone en la televisión? ¿Quién se sienta en el sofá y quién en el suelo? ¿Quién ocupa el primer turno de la cena? ¿Y el segundo o incluso tercer turno? ¿Y si la comida solo vuelve a llegar para los del primer turno? Las riñas son continuas. Incluso entre las y los menores usuarios hay grandes diferencias, lo que aumenta la tensión. Quienes llevan más tiempo y tienen plaza pueden, por ejemplo, llamar a sus familias por teléfono".

**ELA seguirá luchando para que la Diputación Foral de Araba ponga más medios, tanto humanos como materiales.** "El personal que hay es absolutamente insuficiente, por lo que no podemos dar la atención que merece cada menor. Esto genera grandes situaciones de estrés en unos menores que no pueden ser debidamente atendidos y unos trabajadores y trabajadoras que estamos absolutamente desbordadas. Pero no solo se necesita más personal, también se necesitan recursos físicos para poder dar una solución al excedente de personas usuarias que hay. Solo así podremos ofrecerles el trato digno y equitativo que merecen".

***Al tratarse de menores, no hemos podido realizar fotos de la situación de hacinamiento que se vive en Bideberri. La imagen utilizada es reflejo, sin embargo, de las denuncias de los trabajadores/as en estos centros.**

**FRANQUEO CONCERTADO /** FRANKEO ITUNDUA
**NO 08/129** ZKIA

**Causa devolución** Itzultzearen arrazoia

- ☐ **Dirección incorrecta** Helbide okerra
- ☐ **Desconocido** Ezezaguna
- ☐ **Rehusado** Uko egin zaio
- ☐ **No retirado** Baztertuta
- ☐ **Se ausentó** Baztertuta

**DISTRITO** BARRUTIA: **FECHA** DATA: